

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Gaia garatu
- 3. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(minutu 1/1,
ikasleko)

(3:30/3:30,
ikasleko)

(2:30/2:30,
ikasleko)

**Guztira 15 bat
minutu
(bikoteko)**

Gaia prestatzeko denbora:

10 minutu inguru dituzu gaia prestatzeko.

Amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

3. gaia: Gobernuz Kanpoko Erakundeak beharrezkoak?



GURUTZE GORRIA

GREENPEACE

Egitekoa

Aspaldi honetan GKE-en kopurura asko handitu da, eta baita horien aurkako salaketak ere. Batzuek lan handia egiten dute, beste batzuek sekta-kutsua dute. Lapurretak ere izan dira.

Zehatzago

Beharrezkoak direla uste duzu? Gobernuek hartu beharko lukete horien tokia? Baten bat ezagutu duzu barrutik? Ongi ari dira lanean? Zer egin beharko lukete?

Gogoratu 2 minutu dituzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

2. MAILA

2. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (Argazkien orria).

- Ikasleei bere fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (ikus. liburuxka berdean, 3. or.).
- Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

2. GAIA:

Bidaiatu, bai, baina nola?

Fitxan agertzen diren argazkietan bidaiak egiteko hainbat modu agertzen dira. Zein da gehien gustatzen zaizuna? Zergatik? Zuen iritzia eman, bakoitzak berea. Horren ondoren, zuen iritziak eztabaidatu eta saiatu biok egiteko bidaia mota bat aukeratzeko.

GALDERA OSAGARRIAK

- Nola bidaiatzen du jendeak normalean?
- Zein da sasoi onena bidaiak egiteko?
- Tokiak badu eraginik bidaia mota aukeratzeko orduan?



Bidaiatu, bai, baina nola?

